

INDUSTRIA-PRODUKZIOAREN INDIZEA. 2023ko AZAROA

Euskal AEko industria-jarduera %0,1 murriztu zen 2023ko azaroan


2023ko lehen hamaika hilabeteetako balantzean, produkzioa %0,3 jaitsi da

Eustatek landutako datuen arabera, Euskal AEko industria-produkzioa %0,1 jaitsi zen 2023ko azaroan, aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta eta lan-egutegiaren termino homogeneoetan. 2023ko lehenengo hamaika hilabeteetan metatutako produkzioa aurreko urteko aldi metatuan ikusitako produkzioa baino %0,3 txikiagoa izan zen.

Aurreko hilbetearen aldean (2023ko urria), Euskal AEko industri jarduera %0,3 hazi egin zen, urtaroen eragina zuzendu ondoren.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizearen urte-arte aldakuntza-tasa (%)

Jaiegunen eraginetatik zuzendua



Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Ondasunen xede ekonomikoaren arabera, *Bitarteko ondasunetan* produkzioaren urte arteko %0,8ko jaitsiera egon zen. Kategoria horretan sartzen dira metalurgia eta metalezko produktuen fabrikazioa, industria kimikoa eta kautxo eta plastikozko produktuen fabrikazioa.

Kontsumo-ondasunek ere urte arteko joera negatiboa izan zuten 2023ko azaroan, produkzioa %2,5 murriztu baitzen sektore osoan. Jaitsiera hori *Kontsumo-ondasun iraunkorren* portaerari zor zaio, non altzarien eta etxeko tresnen fabrikazioak, besteak beste, %6,5eko murrizketa izan zuen. *Kontsumo-ondasun ez iraunkorren* produkzioa, bestalde, %1,6 jaitsi da. Azken horien artean daude elikagaiak prozesatzeko eta kontserbatzeko jarduerak, garbiketarako eta higienarako produktuen edota farmazia-produktuen fabrikazioa eta jantziak egitea.

Energiaren produkzioak ere behera egin zuen 2023ko azaroan, %7,2 aurreko urteko hil beraren aldean. Sektore honetan sartzen dira petrolioaren fintzea eta energia elektrikoaren ekoizpena eta hornidura.

Ordea, *Ekipoko ondasunen* produkzioa %4,0 igo zen aurreko urteko azaroarekin alderatuta. Horretan sartzen dira ibilgailu motordunen fabrikazioa, tren-makinen eta tren-materialen eraikuntza eta aeronautikaren edo itsasontzien eraikuntza.

Euskal AEko Industria produkzioaren indizea. Sektore A38 nagusiak (1). Urte arteko hazkunde-tasa (p). Azaroa 2023

	m / m-12
Elikadura ind., edariak, tabakoa	-2,6
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	-1,4
Kautxua eta plastikoak	-2,4
Metalurgia eta produktu metalikoak	-3,0
Materiala eta tresna elektrikoak	0,9
Makineria eta tresneria	9,6
Garraio-materiala	1,1
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	-6,6

(p)Behinbehineko datuak

Egutegi eraginak zuzendutako datuak

(1)Euskal Aeko industrian pisurik handiena duten sektoreak

Data 2024ko Urtarrilaren 9a

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Euskal AEko industriako pisurik handieneko sektoreen artean, urte arteko hazkundean, *Makineria eta ekipoa* (%9,6) eta *Garraio-materiala* (%1,1) izan dira nagusi. 2023ko azaroan jaitsierarik handienak izan dituztenak, berriz, hurrengoak izan dira: *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (%6,6) eta *Metalurgia eta Produktu metalikoak* (%3,0).

Euskal AEko Industria produkzioaren indizea lurralde historikoaren eta ondasunen helburu ekonomikoaren arabera. Aldakuntza-tasak (p). Azaroa 2023

	Egutegi eraginak zuzendutako datuak		Datu desestacionalizatuak
	m / m-12	Am / A(m-12)	m / m-1
INDIZE OROKORRA			
Euskal AE	-0,1	-0,3	0,3
Araba/Álava	-0,5	0,1	-0,1
Bizkaia	1,1	0,0	0,8
Gipuzkoa	-1,0	-1,0	0,1
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK			
Kontsumo-ondasunak	-2,5	0,0	-0,5
Kontsumoondasun iraunkorrak	-6,5	-10,0	2,0
Kontsumoondasun ez-iraunkorrak	-1,6	2,5	-1,1
Ekipo-ondasunak	4,0	3,5	-0,1
Bitarteko ondasunak	-0,8	-0,6	1,5
Energia	-7,2	-9,5	-4,7

(p)Behinbehineko datuak

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Am / A(m-12) Urte arteko aldakuntza-tasa, urtariletik behatutako azken hilera arte metatutako aldiaren (Am), aurreko urtean pilatutako aldi beraren (A(m-12)) aldean

m / m-1 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

Data 2024ko Urtarrilaren 9a

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

2023ko azaroan, Industria-Produkzioaren Indizearen urte arteko bilakaera negatiboa izan zen Araban eta Gipuzkoan, produkzioa %0,5 eta %1,0 jaitsi baitzen, hurrenez hurren. Bizkaian, aldiz, industria-sektorearen produkzioa %1,1 igo zen urte arteko baliotan.

2023KO AZAROKO BALANTZE METATUA

Industria-Produkzioaren Indizea %0,3 jaitsi da urteko lehen hamaika hilabeteetako aldi metatuan, batez ere Energiaren %9,5eko jaitsieragatik. *Bitarteko ondasunek* ere bilakaera negatiboa metatu dute, aurreko urteko aldi beraren aldean %0,6ko jaitsierarekin. *Ekipo-ondasunetan*, aldiz, azarora arte metatutako produkzioa %3,5 igo da eta, azkenik, *Kontsumo-ondasunetan* konstante mantendu da.

Lurralde historikoka, 2023ko lehen hamaika hilabeteetako metatua balantze negatiboarekin itxi da Gipuzkoan, %1,0ko jaitsierarekin. Bizkaiak konstante dirau, eta Araban, azkenik, urteko lehen hamaika hilabeteetan produkzioaren %0,1eko igoera metatua izan da.

OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazioa biltzen lagundu duten establezimendu guztiei. Horiei esker, hilabete honetako indizea laginaren **%88,24**ko estaldurarekin kalkulatu da.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62